


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



FRANKISMOAREN ERREPRESIOA ETA LAZTURA BILBOKO KARTZELETAN

1937ko ekainaren 19ko arratsaldean armada frankista Bilbon sartu zen. Alemania nazia-
ren eta Mussoliniren Italiaren laguntzaz do-
zenaka euskal herri bonbardatuta ehunka zi-
bil hil izana ez zuten nahikoa, nonbait. Hasi
zen errepresioak erbestera eraman zituen
bizkaitar asko, beste askok beren lana galdu
zuten, haietako milaka kartzelatu egin zituz-
ten eta ia 600 Larrinagako kartzelan eta De-
rioko hilerriko hormetan erail. Gehienak fusi-
latuta, baina haietako 34 garrotez. Artikulua
ilustratzen duten bi irudiak autore ezezagu-
nekoak dira, baina laztura eta errepresio
frankista bikain islatzen dituzte. Bilboko Es-
kolapioetan zegoen kartzelan eginak dira.
Milaka euskal herritar egon ziren bertan pila-
tuta. Goiko argazkian apaiz bat ageri da kar-
tzelako patioan presoek hitz egiten. Beheko-
an, presoak argazkian ateratzeko prest,
aurrean beren kartzelariak dituztela.